

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**199/2017 Foru Agindua, ekainaren 27koa, onartzen duena bete egin direla maiatzaren 19ko 145/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Azken foru agindu horrek behin betiko onartu zuen Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualaren espedientea, lurzoru urbanizaezineko 5 poligonoko zenbait lurzatiren kategorizazioa aldatzeari buruzkoa**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren maiatzaren 19ko 145/2017 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen, zenbait baldintzarekin, Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualaren espedientea, lurzoru urbanizaezineko 5 poligonoko zenbait lurzatiren kategorizazioa aldatzeari buruzkoa.

Bigarrena. 145/2017 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen, haiek zuzendu eta gero, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2017ko ekainaren 13an, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

#### OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentuak aztertuta, egiaztatu da aipatutako foru aginduan ezarritako baldintzak bete dituela.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren maiatzaren 19ko 145/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 4. aldaketa puntualaren espedientea, lurzoru urbanizaezineko 5 poligonoko zenbait lurzatiren kategorizazioa aldatzeari buruzkoa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta beronen aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**